

URDAIBAI

2015
zenb. 03

MAGAZINE ONLINE

ERAGINKORTASUN **ENERGETIKOA** **BUSTURIALDEAN**

- | BUSTURIKO ERLOJUAREN DORREA
- | AKURIO KONTRAMISUA
- | PIPER TXORIZEROA, KOLOREA ETA ZAPOREA KORDELEAN LOTUTA
- | UDAL ORTU EKOLOGIKOAK GERNIKA-LUMON
- | XAIBOR, JAIRIK JAI

EZ DAGO SUERTERIK!

Ekintzailletza, ekina, ekintzaileak... berezko ekintzaileak, esperientziaren baten ostean hausnartu eta ekintzaile diranak, derrigorrezkoak edo halabeharrezkoak dagoz. Zer gaitia ez da kontua. Inportanteak ibilbidea, iparra ez galtzea, zehaztapena, beharra, etsipenik eza eta pazientzia dira, baina batez be, adorea izatea. Gatxa, gero! Baina egingarria.

Busturialdea eskualde sortzailea izan da, ekintzailea, eta ezin dogu esan oin badala, nahiz eta aukera ekonomiko eta empresarial barien bila ibili. Sasoi baten, industria izan zan nagusi eta oin gero eta gehiago hirugarren sektorea. Ez daigun ekoizpen jardueretan baino pentsau. Betiko pentsakerarako deigarriagoa izan leike, sentimenduak, sentsazioak, denbora liberarako esperientziak bideratzen dauazanak jendetza mobiduten dauala ikustea.

Edadeak ez dauko zer ikusirik, batzuetan formakuntzak be ez. Arrakasta edozein sokondotan egon leike, edozein ekintzatan, berritzaile izan edo ez. Izan leike "krak" bat musika plazan ipintzen? Zein da gakoa ehundaka ume eta euren gurasoak plazan dantzari ipintzeko? Erderazko esaereak diño: "gizon baten atzean emakume haundi bat dago". Arrakastadun enpresen atzean pertsonak dagoz, proiektua, diziplina, aurrera egiteko gogoia, baina batez be, dedikazio osoa eta ilusio handia. Edozetarako beharrezkoak. Ba ete dago suertetik?.

HARPIDETU!

Aldizkaria jaso nahi badozu, kontaktatu hemen:

nuevaeuropa@nuevaeuropa.com

tel.: 94 625 06 06

URDAIBAI MAGAZINE
NUEVA EUROPA S.M-REN LANTALDEAK
BURUTU DAU:

Ideia, edukiak, testuak,
argazkiak, diseinua, maketazioa
eta produkzioa.

ARGITARATZAILEA:
NUEVA EUROPA S.M

Carlos Gangoiti, 15, behea
Gernika-Lumo (Bizkaia)

nuevaeuropa@nuevaeuropa.com
www.nuevaeuropa.com

 **Zer ideia ona!**
nueva europa

AURKIBIDEA

ERREPORTAJEA

03

Eraginkortasun energetikoa Busturialdean

LEKUKO

06

Busturiko erlojuaren dorrea

KALERIK KALE

08

Akurio kontramaisua

SAL TSA-PORRU

10

Piper txorizeroa

BERDEAN

12

Udal ortu ekologikoak Gernika-Lumon

BETI-JAI

14

Xaibor, jairik jai



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

LEGE GORDAILUA: BI-153-2015
Aldizkari honek Bizkaiko Foru
Aldundiaren laguntza jaso du.

ETORKIZUNA ARGITUZ

ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA BUSTURIALDEAN

Gautegiz Arteagako kale-argiak

Etorkizuneko ingurumen jasangarriari “argia emoteak” estrategia politiko eta energetiko osoak ezartzea esan gura dau. Dana dala, kanpoan, agerian, egin behar da. Busturialdeko herri nekazariak eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaz lotuta dagozanek hartu dabe horren ardurea, eurek direlako aldaketaren eragile nagusiak. Eskualdeko herri txikiek azken hiru urteetan, 2013, 2014 eta 2015ean 1.500.000€ inguru inbertidu dabez.

Energia-eraginkortasunerako proiektuetan inbertitzea gastua, ingurumen-kaltea, kutsadura eta baliabide naturalak murriztea da. Euskal erakundeek 2002-2020 Garapen Iraunkorraren EAEko Ingurumen-estrategian konpromiso handia hartu dabe, Udalak eta erakundeak dira estrategian aurrikusitako helburuak betetzeko giltzarria. Udalerrri bakotxean gizarte ekintzako planak Tokiko Agenda 21 birtartez garatzen dira.

Tokiko Agenda 21 barruan energia da ardatza. Jendea energiak jasangarritasunean daukon pisuaz eta inportantiaz jabetzea gura da eta udal planifikazio prozesuetan aurrerapen energetikorako irizpideak ezartzea indartu. Kaleetako argiak dira leku publikoetan energia-eraginkortasuna hobetzen hasteko lehenengo pausua. Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak, urteetan, diru-la-

guntza dekretuen bidez lagundu dabez inbertsio proiektuak eta kanpoko argien energia elektrikoaren kontsumoa murrizteko jarduerak. Aurtun, 2015ean Ingurumen Sailaren (BFA) eraginkortasun energetikoaren gaineko tokiko gizarte planak ezartzeko (Tokiko Agenda 21) aurrekontu-partida 1.997.267,38€ izan da. Eurostatik %70 baino gehiago Bizkaiko udalerriek herriko argiak hobetzeko izan da; 200.000€ inguru Busturialdeko herrietarako. Energiaren Euskal Erakundeak (E.J.) energia-eraginkortasunerako programa bat dauko, 2015ean 12 milioi eurokoa izan da eta 1,5 milioi euro EAEko erakunde publikoetarako izan dira, hauen barne argiteri publikoa hobetzeko proiektuak.

Erakundeek laguntza jaso ahal daben jardueri esker, herriko argien hobekuntza esaterako, 40.000 tep (petrolio tonatan emonda) aurreztu dira, hau da, 66.000 etxebizitzek kontsumitzen daben energia, edo beste modu batera esanda, euskal energia eskariaren 0,6.

Geure herriak aldaketa energetikoaren eragileak

Tokiko politikek zein politika nagusiek jasangarritasuna dabe helburu; izan be, Bizkaia 2020rako Energia Jasangarriaren Estrategian dagoan erronka bat, energia gitxiago kontsumitzea eta instalazioen energia-eraginkortasuna hobetzea da. Energia gehiago kontsumitzeak ingurumenean eragin kaltegarriak daukoz (biodibertsitatean, airearen kalitatean...) gure herriek badakie aurreztu egin behar dala, baina praktika energetiko onen bidez, modurik eraginkorrenean eta teknologia eta teknikarik aurreratuenak erabiliz, energiari ahalik eta probetxurik handiena aterateko. Bizkaian eraginkortasun energetikoak %20 gora egitea da helburua. Bizkaian energia iturririk erabiliena elektrizitatea dala kontuan izanda (%30).

Arratzuk ondo daki zer dan ingurumen naturala kontserbatzea eta bizi-kalitatea eta zerbitzuak. Busturialdeko beste udalerrri batzuen moduan, 2013an, *villa* tipoko farolak kendu, energia kontsumo handiko sistema, eta Led teknologiadunak ipini ebazan, energia-eraginkortasun handiagoa izateko, gehiago aurrezteko eta argi kutsadura txikia izateko. Holako bonbilet kontsumo txikia, tenperatura baxua, espektro maila zabala, erantzun arina eta argi distiratsuagoa dauke; argitasunean ez dauke etenik, luzaro irauten dabe eta fidagarriak dira. Holako argiak ipinita, 77,826kwh aurrezten da, urtean 15,515€.

Gainera, ondiño eraginkortasun energetiko handiagorako, tokiz toki gestionau leikez, hau da, toki bakotxeko argi potentzia programatu leike, hain orduan hainbestekoa izateko edo presentzia-detektoreak ipinita, holan, argiaren indarra bajatu eta jenderik gitxi dabilen orduetan energia kontsumoa murriztagoa izango da.

Holako sistemakaz kontsumo energetikoa murriztu egingen da, baina zerbitzu kalitatea galdu barik, eta horixe da danok gura doguna, gure kaleek argitasuna izatea. Baina instalazioen bizia luzatzea be lortzen da. Helburu nagusia udalerrria argizatzea da, eraginkortasuna, segurtasuna eta estetikea konbinatuta, oinezko zein ibilgailuentzako.

Elantxoben be portuan argiztapen ona izateko inbertidu dabe. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren arabera, 2013an 33 farola aldatu ebezan Elantxobeko urigunean edo oinezkoentzako bideetan; beraz, egunean eta orduko 2300W aurreztu ebezan.

Gautegiz Arteagan be argi barriak ipini ebezan energia aurrezteko eta argi-kutsadurarik ez izateko. Farola barriek orientazio eta energia aprobetxamendu hobea dauke.

Foruko auzo eta baserri inguruen argiak barrizteko plan osoari esker Atxondoa, San Kristobal, Armotxerri edo Urberuaga auzoek argiztapen hobea dauke. *"Auzo guztien zerbitzuak hobetzen ahalegintzen gara. Argia derrigorrezkoa da batez be Urberuagan, neguan sarri argi barik egoten ziran eta. Argi kalitatea, segurtasuna eta eraginkortasun energetikoan hobetu dogu"* diño Jane Eyre Urkietak, Foruko alkateak.



Udalerria argiztazea da helburua, oinezko zein ibilgailuentzako.

Kale-argiak Arratzuko bidegorrian

Kaleetako argiak hobetuta, ingurumen-osasunean irabaziko dogu.



Foruko Atxondoa urbanizazioa

Beste erronka bat kutsadurari aurre egitea da. Herri argiak hobetuta, CO₂ isuria eta argi-kutsadura neurtzen dauan balorea FHS-a (goiko hemisferioa doazen isuriak) murriztu eta erreprodukzio kromatikoa, IRC-a, hobetzen da. Mundakan 27 enpresa dagozan Lamiaraneko Industrialdean, argiak barriztau dira. *"Uri-hondakin solidoak murrizteko, berrerabiltzeko eta erreziklateko kudeatzen dogun moduan, herri argiztapen hobearen bidez energia aurreztu gura dogu"* diño Mundakako alkateak, Aitor Egurrolak.

Muxikan be proiektu ezberdinak garatu dabez azken urteotan hobekuntza energetikoa lortzeko asmoz. Besteak beste, errepideetako argiak aldatu ebezan 2013an, %70ko hobekuntza energetikoa lortuz edota argi puntu barriak ezarri dabez filosofia bardindegaz, CO₂ emisioak jaisteko eta kontsumoa murrizteko.



Kale argiak Sukarrietan

Busturialdeko beste udalerri askok Busturia, Ea, Morga, Ibarrangelu, Sukarrieta, Mendata edo Ajangiz herrietako argien energia-eraginkortasunaren aldeko apostua egin dabe, eskualdean oin dala urte batzuk hasitako bideari ekinez. Ezin da jakin zehatz zenbat gastau dogun gure herrietan energia eraginkortasuna hobetzen, baina bide horrerri ekin behar jako. Hobetzeko eta irabazteko inbertidu, eraginkortasun energetikoa izateko eta ingurumen arloan jasangarriak izan gaitezen.

Kontuan izanda bertoko joera nagusia ingurumenaren osasunean inbertitzea dala, Energiaren Nazioarteko agentziak 2010-2035 aldian energia berriztagarrietako inbertsioa 5.7 bilioi dolar izango dala uste dau. Ikaragarritzko inbertsioa danon onuragarri.

Kontuan izanda bertoko joera nagusia ingurumenaren osasunean inbertitzea dala, Energiaren Nazioarteko agentziak 2010-2035 aldian energia berriztagarrietako inbertsioa 5.7 bilioi dolar izango dala uste dau. Ikaragarritzko inbertsioa danon onuragarri.

Reloj no marques las horas...

BUSTURIKO ERLOJUAREN DORREA

*Denboraren joanaren lekuko, Busturiko sarrerako tontortxuan
“Erlojuaren Dorreak” herriko historiaren orduak emoten dauz.
Madariaga Dorretxearen multzo arkitektonikoaren parte da,
gaur egun Euskadiko Biodibertsita Zentroaren egoitza dana.*





Busturiako erlojuaren dorrea gaur egun, 2015

Busturiko Erlojuaren Dorrea 1851koa da, ordutik hona, Busturialdeko paisajearen protagonistea izan da. Itxurea deigarria da, enborpiramidalekoa, neoklasikoa eta faro-arkitekturaduna, barrualdeko itsasargia emoten dau, bene-benetako itsas estilokoa. Antonio Goycoecheak egin ei eban proiektua. Baruan, dorrearen erlojuak antzinako tresnaria dauko oso-osorik. Gaur egun funtzionamendu digitala dauko, baina lehengo lekuan dirau zutunik, lehengo lekurantz emoten dau eta karriloia oso-osorik dauko. Auñamendi Entziklopedian dorrean eguzki erlojua dagoala esaten da; izan be, hegoaldera emoten dauan dorrearen aldean dago. 2012an barriztau eben antzina moduan gerizpeagaz ordua emoteko.

1852an Juan Jose de Amunateguik emon eutson Busturiri. Aktan agertzen da beharrak 62.000 erreal kuarto izan zirela. 1857 urte amaieran, Busturiko udalak omenalditxo bat egin eutson, eskuzabaltasuna eskertuz. Herriko edozein lekutik ikusten da eta esaten da emazteak agindu ebalaraikitzeko, senarra inoiz ez zalako orduan heltzen etxera eta holanik, egoan lekuan egoala ordua jakingo ebalako.

Herrian errotuta egoala argi geratu zan 1890eko Errege Aginduan, han Busturiko Alkateari, Nicolas Arroateguiri, Dorrearen Erlojua, egoan lur saila eta bidea, Jesusen Bi-hotz Sakratuaren Komunitateari zesioan emoteko baime-

na emon eutson konbentoa eraikitzeko bertan ikastetxea egiteko.

Herriak hainbesteko loturea eukotsonez erlojuaren dorreari, monja Komunitateari emoteko zesinoko agirian bertan, Dorretxea beti herriari lotuta geratzeko baldintzak ezarri ebezana. Errege Aginduak diño: *"...Komunitateak herriari ekarri ahal deutsozan onurak kontuan izanda, honako baldintza honeetan onartu zan zesinoa:*

1^a Erlojua dagoan lekutik kenduko balitz, Komunitateak – segiduan ipiniko ez baleu- alkateak eta Komunitateko Arkitektoak deritxen lekuan ipiniko leuko.

2^a Erlojugilea hartuko da bere ardurarako eta Busturik ordainduko dau.

3^a Saldu, traspasau edo bertan behera ixteagaitik, jabez aldatuko balitz, Komunitateak erlojua dorre berdinean edo antzekoan ipini beharko leuko; propietatearen alde batean ipini ahalko litzateke, esfereak Errege Bidera emoten dauala...". (Iturria. Monografía de Busturia. Anteiglesia y Merindad.1980 M^a Victoria Gondra)

...erlojua, ez geratu inoiz. 

Akurio kontramaisua,

MUNDUARI BIRA, BERMEON
HASI ETA
AMAITU



Dendak, tabernak, jatetxeak, sokondo zatatsu edo la-saiak... gure kaleak gure herrien historiaren lekuko dira. Sarri, denboraren joanak ahaztuta eta inoz kaleren bateri euren izena ipini bajako be, ez gara jabetzen pertsonaia entzutetsuak, enpre-sariak edo izaera gogorreko nabigatzaileak izan doguzala.

Horreexetako bat da Juan de Acurio kontramaisua. Elcanogaz joan zan lehenengo mundo-biran. Topau Bermeoko kaleetan...



Gure Gipuzkoa.net/Tripulación de Elcano©
CCby-sa: Indalecio Ojanguren



Bermeoko Acurio kontramaisu kalea

Umetatik behatzen ebazan itsasoaren kulunkak; itsaso zakarra batzuetan, Bermeo bere **jaioterriko** portua gogor joten ebana. Esan geinke, orduko kresala izan ebala bitzta abenturazalean erregai. Mairin Mitchell, historiagile irlandarrak "La

Odisea de Acurio" abenturazko eleberri historikoan ezin hobeto deskribatzen dau: **"itsas gizon hareen prototipoa, gauzen ikuspegi zabalak itsas bizitzari ekitea normaltzat hartzen ebenena"**. Idazle honek modu bitxian kontatzen dauz bermeotar gizon ha, herriko merkatalontzi ontzien jabekide baten semea, 23 urte ebazala, espezien irlaren bila joian Magallanesen espedizio historiko haretan sartu zaneke istoriaren gorabeherak. Juan de Acurio bizirik urten ebenetako bat izan zan Bermeora bueltatu zan munduko bira haretan.

Victoria Nao-an bueltan etorri zanean, Sevillako Indietako Agiritegi Nagusian dagoen Espezien Irlaren gaineko Inkesta Batzordean sinatu eban lekukotza aberatsari esker ezagutu ahal dogu bere istorioa. Ertzilla dorre historikoan dagoen Bermeoko Arrantzaleen Museoan be badago kopia bat.

Narrazioak diño Acurio 1493an jaio zala eta Bermeoko familiarik nagusienetako batekoa zala **"bere arbasoa Martin de Acurio, 1321ean Gernikako arbolaren azpian burutu zan Gernikako Batzorde Nagusiko kidea izan zan. Amaren partetik, Juan, Berriz familia ahaltsuaren ondorengoa zan, euren lurrek Durango guztia inguratzen eben"**. Mairin Mitchelllek Juan de Acurio holan deskribatzen dau: **"... gizon argala, euskaldun askoren antzeko aurpegi... azal argiegia itsasoan 6 urte emondako gizon batentzat... itsasgizon bizkaitarren belaunaldi askotako odola marinel gaztearen zainetan..."**

Kontramaisu enbarkatu zan 1519an Concepcion Nao-an, Gaspar de Quesada zan kapitaina eta Juan Sebastian Elcano nagusia. Beste bermiotar batzuk be joan ziren Pedro Santúa, Antonio Basazábel, Juan de Aguirre, Martin de Iraurraga eta Pedro Chindurza. Indigenek Magallanes hil eta 1521ean Concepcion Nao-a desagertu zanean, Acurio Victoria Nao-aren kontramaisu izatera pasau zan, abentura ausart haretatik bueltatu zan bakarra. 1522an heldu ziren San Lucar de Barramedara Elcano kapitain zala, hiri horretan badago ohorezko plaka Juan de Acurio bermeotarra munduko biran bizirik urten ebenetako bat izan zala aitatzen dauana. Bidaiaren ostean etxera joan zan, Bermeora, eta Santa Eufemia elizan ezkondu zan.

Bermeok bere bitzta ausarta, historikoa, abenturazalea eta itsasoari lotutakoa omentzen dau kale baten, Acurio Kontramaisua kalea.

PIPER TXORIZEROA, KOLOREA ETA ZAPOREA KORDELEAN LOTUTA

Uda amaitzen danean, baserrien aurrealdeak margolarien paletako kolore gorri ezberdinak balitzaz moduan agertzen dira. Piper txortak haizetan sikatzen dira, piper txorizero bihurtzeko. Barazki kanpotarra da, Ameriketatik ekarria, baina hain bertoko, hain geure egin dogu, euskal gastronomia bere zapore, kolore eta propietate barik ez litzatekeela ezer.

Piper berde sasoia amaitzen danean, Gernikako piper berdeak landarean ixten dira gorritzen, gero batu, josi (ilobalagaz), txorta egin eta baserrietako etarteetan eta aurrealdeetan eskegiten dira, sikatzeko. Gernikako piper gazte eta gozoaren kolore berde distiratsua gorri ilun egiten da eta berde janda, gozoa eta freskoa bada, siku, piper txorizeroa danean, guztiz baliagarria da eskaratzetan.

Izenak berak diñoan moduan “piper txorizeroa” txarria hiltzen zanean, txarrikiak kontserbatzeko eta txorizoak egiteko erabili izan da.

Gure baserritarrek beti erabili izan dabe, konturatu zirelako piper sikua jakiak kontserbatzeko edo adobatzeko eta kolorea emoteko modu naturala zala. Egia esan, edozein jatekari emoten dautso aparteko zaporea, fina eta gozoa ahoa bete-bete egiten dauana.



Piper txorizeroa beharrezkoa da saltsetarako, geure bizkaitar saltsarako esate baterako, horretarako oliba olio birjina eta kipula gorri bat botatzen jakoz.

Piperrari barruko mamina atarateko uretan euki behar da beratzen ordu batzuetan. Saltsa horregaz prestatzen dira makailaoa bizkaitar erara moduko jaki gozoak edo hain estimatuak diran txarri muzturrak edo tripakiak. Gainera, piper txorizeroa sukalkia edo marmitakoa egiteko be oinarritzko elementua da.

Busturialdea da piper txorizeroa erein eta hartzen dan inguruetako bat. Berton daukogu Gernikako piper estimatua sortzen dan hazia. Dana dala, Bizkaiko beste inguru batzuetan be hartzen da.



[Piperraren propietateak eta bitxikeriak:]

Piperrak fibra, folato, bitamina eta antioxidante ugari dauko, batez be C bitamina. Dieta hipokalorikoetan eta haurdun dagozanei gomendatzen jake. Odoleko kolesterol maila jaisteko eta diabetesa kontrolazteko balio dau.

Kapsaizina dauko, behatzunean eta urdaileko mintzean eragin antibiotikoa, analgesikoa eta bizigarria dauko.

Piper gorriek **likopenoa** dauke, minbiziaren aurka eragiten dauena.



UDAL ORTU EKOLOGIKOAK GERNIKA-LUMON

Gernika-Lumoko baserritar izaera agerian geratuko da eskualdean aitzindaria dan proiektu honegaz. Erabiltzen ez diran lur sailak berreskuratu eta laborantza ekologikorako berrabiltzeko gune berdeak sortuko dira, jendearen esku egongo dira; zabortegei kalifikazioa euken lurrak, jabeek itxi udalari eta uriko ortu egingo dira. La Vegako ibaiertzean 60-75 m²-ko 141 zati Gernika-Lumoko pertsonen eta irabazirik bako erakundeen esku ipiniko doguz: ***"gure ideia nekazaritza proiektua egitea zan, ingurumenean uztartutako kultura ekologikoarena, baina gizarte osagarria be bai. Ortuak erabiltzen dabezenen artean hartuemonan egiten da, gazte, nagusi, jubilatu, langabetu edo behargin...azken baten, herritarrei kanpoan debaldeko ekintza erangigarri bat eskaintzea da"*** diño Rafael Ensunzak, Gernika-Lumoko Udaleko Ingurumen Teknikoa eta proiektuaren sustatzaileak.

Proiektuari 2014 udan emon jakon hasierea sastrakak kendu ziranean eta lehenengo ortuak 2016an hasiko dira. ***"2002an saihesbidea egin ebenean, inguru hori agerian geratu zan, sasiz eta landare inbaditzailez beterik, 16.000m² lurgorri. Beste leku batzuetako ortuak ikusita, Derio, Berri, Markina edo Getxokoa, hemen be martxan ipintzea pentsatu genduan. Lehenengo eta behin jabeekaz egin genduan berba eta erabiltzen ez ebezan lurrak itxi ebezan. Horrer esker hasi genduan proiektua"***. Espazioa berreskuratzeko eta ereiteko lur bihurtzeko Gernika-Lumoko Udalak 70.000€ inguru inbertidu dauz eta behar asko egin be bai. ***"Lur guztiz emonkorra lortu arte, berreskuratu dogu. Lurraren azterketa sakonak egin dira, agronomia aldetik zein lurren ingurumenaren kalitatearen aldetik. Gainera, 1000m² arboladia itxi dogu, baso naturala, jendea ortura familiagaz doanean, lekua euki dagien gerizpean trankil egoteko"*** diño Ensunzak.



Gure baserritarren ortuak izan dira beti Urdaibaiko paisaiaren ezaugarri nagusia. Nekazaritzak mantentzen eban eskualdeko oreka ekologikoa. Gernika-Lumoko Udal ortu ekologikoen ekimenaren helburua balore hori uriguneratu eta proiektuagaz ingurumena berreskuratu eta gizartea horretan sartzeko aukera izatea da.

Ortua, jendarterako lekua

Gernika-Lumoko udal ortu ekologikoen ekimen proiektua garatzeko udalak ideiak, proposamenak eta ekarpenak emoteko partaidetza prozesu irekia zabaldu eban eta danak hartu dira kontuan. ***"Gai eztabaidatua eta zer esan asko emon dauena izan da. Astran egin dira batzar irekiak eta Ordenantza burutzeko dana euki da kontuan. Holanik, udal uri-ortuen ordenanantzak puntu aurrendari asko daukuguz. Esaterako, familiako edozeinek erabili ahal izatea ortua"*** diño Rafaelek.

Gernika-Lumon dagozan 141 ortutatik 60 eskatuta dagoz. Lehenengo faseagaz geldi-geldi hasteko modu ona da. Eta urtarrian lur zatien zozketa egiten danean, ***"2016ko udaberrian ikusiko doguz lehenengo letxugak"***. Deialdi bariak zabaltzea pentsaten da. Erabiltzaileek formazio teorikoa eta praktikoa izango dabe eta urtean zehar jagole aditu

baten laguntza be bai, lehenengo uztagaz eta laguntzeko. Uri-ortuen erabileraren araudiak pertsonen, ondasunen, erreminten...arduraren gaineko eskubideak eta betebeharrak daukoz. ***"Dana dago araututa. Espezieak Euskal Herriko Nekazaritza Ekologikoaren Batzorde Arautzaileak kontrolauko dauz, eta ortuak autokontsumorako baino ez dira izango. Udal araudiak lur sailen erabiltzaileek eurek elkarte sortzea be aukeran ikusten dau, euren burua gobernatzeko, baina beti Udalak gainbegiratuta"***.

Gernika-Lumoko udal uri-ortuek ura dauke, hondakinak botateko konpostaren lekua eta hur tresnertzako lekua. Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eta Busturialdeko Ur Patzuergoaren oniritxia daukon proiektu hau eskualdean bakarra da.

XAIBOR, JAIRIK JAI



Jaia berbea entzutean bere izena jatorku burura berehala: **Xaibor.**

Gazte gernikar honek jakin badaki zelan animatu jai giroa eta horrexetan dabil beharrean aspalditik. Dj, animatzaile, showman-a,...musikagaz eta jaiagaz lotuta dago Xaibor Zubiaga. Bere beharra hurretik ezagutzeko beragaz egin dogu berba:

Zenbat urte daroaz Xaiborrek jaiak, ekitaldiak eta abarrekoak alaitzen?

11 urte beteko dodaz 2016ko otsailaren 9an.

Zelan eta noiz hasi zen guztia?

Orain dela 11 urte Zamudiora hurreratu nintzen lagunekaz polikiroldegian egiten zan Gabon Zaharreko kotiloira parranda egitera. "Luhartz" taldea egoan giroa animatzen. Nonbait abeslari aurpegia ikusita edo, Luhartzekoek eta gonbidatu ninduten oholtza gainera igotzera zeozer abes-tera. Eta halan izan zan. Han bertan, baegoan orduko Luhartz taldea eramaten eban managerra, eta nire interbentzioa ikusita, nigaz jarri zan kontaktuan eta handik hilabete pare batera estreinatu neban nire ikuskizuna, Dj animatzailea lehen aldiz Arrigorriagan, Inauterietako asteartean.

Zelan aldatu da zure bizitza?

Ba egia esateko, pertsona ezezaguna izatetik ezaguna edo sasiospetsua izatera, gauzak aldatzen dira. Baina gustoko daukat, ez jat ardura; badakit eta nire beharraren ondorioa zoragarria dala. Bestalde, egia esateko lan mordoa daukat; gaur egunean oso garrantzitsua.

Gaur egun jai danetan Xaibor egon behar da jai giroa alaitzeko. Zelan bihurtu zara beharrezkoa?

Beharra gustu handiaz eginaz, "LANERA" gustura bazoaz, hori publikoarengana transmititzen da; aparte, egia esateko, ikuskizun bakoitzean nik daukadan dana ematen dot. Energia, abotsa, animazioak, dantzaldiak gelditu gabe eta abar.

Umeak dira zeure jarraitzaile amorratuak, baina gazteak eta nagusiak be zeure esanetara mobiduten dira jaietan. Zein da zure sekretua?

Ez dago inongo sekreturik. Akaso formula bakarra izango litzateke, urteetan zehar egindako taulak izatea eta lehen esan moduan, minutu bakoitzeko, den-dena ematea giroa alaitu ahal izateko.

Marketing-a asko lantzen dozu...autobusetan, telebista programak...Zelan egiten dozu guztia? Zuk daroazu zeure burua edo laguntzaile taldea dozu?

Halaxe da, nire kapitalaren % 50 marketing-ean joaten jat, publizitate gehiago behar ez dodan arren, taldeen zein esponsorren laguntzak be sarri askotan egin behar izaten dira, eurekaz eta herriko jendeagaz be egon beharra dagoelako aupadea emanez. Eta bai nik neuk, eta nire mugikor-
rak, daroagu nire burua.

Busturialdean ezeze kanpoan be presente dago Xaibor. Noraino heldu zara? Noraino heltzeko gai zara? Mugarik?

Marbella Starlite, Jaurrieta, Huesca, Burgi, Lizarra, Voto (Cantabria), Cascante, El Billar, Logroño, Arnedo pufff! Hobeto ez pentsatu gehiegi, askotan 5 edo ta 6 orduko bidaiak egiten dodaz emanaldia egin aurretik eta! - Limiterik ez da euki behar, are gehiago, gustauko litxakit Hego Ameriketara jira izugarri bat egitea.

Egiguzu berba zeure alde solidarioaren gainean. Ekintza ugari egiten dozu zeure eskuzabaltasuna erakutsiz...

Urtean behin ekintza bat gutxienez egiten dot bai. Orain dela 4 urte hasi nintzen Gala ongileak eta solidarioak antolatzen, nire kabuz gehienetan. Orain dela 4 Urte "Cesar Carnonaren" aldeko gala ongilea egin neban Liceo Antzokian bere aulki motorizatua eskuratzeko... Orain dela 3 urte "Arrosaren Gala" ongilea, hori be Liceo Antzokian, Gernika Lumoko Jaki Bankoari arroza emoteko... Orain dela 2 urte Gernikako Eroski eta elkarte ezberdinekaz antolatu genduan bizikleta ibilbide solidarioa ni partaide-lagun izan nintzen, eta gainera aurtun "Angola Bihotzean" Ikuskizun - Gala ongilea antolatu dot, Ganboz herrian ur potzu bat eraikitzeke lagundu ahal izateko.

Zein da zeure hurrengo erronka?

Limobusa eta Diskobusa aurrera ateratea; gainera, bado-daz beste 2 proiektu esku tartean (ezin direnak esan ondiño).





Arrotz

EGURRAREN IBILBIDE TURISTIKOA

Aisialdi osasuntsuko eta "izpiritu
jasangarriko" bisita naturalak eta kulturalak.
Familian, bikotearekin, lagunekin...urte
guztian zehar

.....
Erreserbak: visiturdaibai@nuevaeuropa.com

Tel. 94 625 06 06 - 634243762 / www.visiturdaibai.com



Bizkaia



Zer ideia ona!

nueva europa
EKIMEN TURISTIKOAK